

A person wearing a black wetsuit is walking on a sandy beach, carrying a large, teal-colored surfboard vertically. The person is barefoot, and their hands are visible holding the board. The background shows the ocean with waves breaking on the shore under a blue sky with light clouds. The overall mood is serene and coastal.

GESS
CIE SO. K

G.E.S.S – Gliss Eskola Surf School – Ikusgarria

Gauregun, Euskal Herriko kostaldean, ingurumen desberdinetarik etorriak sei neofitok surfa egiten ikasi nahi dute. Andre haien monitoreak, surflari trebatu, aholku franko ematen dizkie. Haien eginahalei esker, irrigarri eta ustekabeko baleta sortuko da.

Teaser <https://vimeo.com/333346352>



So.K konpania

So.K konpania 2017an sortu da. Euskal dantza et garaikidearen arteko estetika berri bat sortzen da, antzerkiaren jokotik hurbiltzen dena, interpretazioari leku garrantzitsu bat emanez.

« G.E.S.S » hirugarren sorkuntza honekin, So.K konpaniak bide koregrafiko berri hau hurbiltetik esperimentatzen du.

Julien Corbineau – Koreografoa

Tipidanik euskal dantzan ari izan da, musika tresna ezbernikak ikasiz. Berantago bere formakuntza osatzen du dantza klasikoan, dantza garaikidean, antzerkian eta txotxongiloen erabileran. 2005etik goiti, artista batzuekin euskal dantzari buruzko egungo ikusmoldea eskaintzen duten ikusgarrien sortzeetan parte hartzen du. KSI taldearentzat, "Izaki" (2006), "Gauzak Biltzen" (2009) eta "Neo Kotilun" (2013) ikuskizunak sortzen ditu. "Hatsa" (2017) eta "Topa.K-Dialogue" (2018) So.K konpanian sortzen ditu.

2016an IDB euskal dantza federazioko lehendakaria bilakatzen da eta 2017an Nathalie Verspecht eta Laetitia Cheverry-rekin So.K konpania sortzen du.

Laetitia Cheverry - Koreografoa

Tipidanik dantza klasikoa ikasten du eta gero dantza garaikidea. 2003an ikusgarri arteetako lizentzia kausitzen du. 2005ean Ekuadorean dantza garaikide Konpainia Nacionalean sartzen da eta Eszena Arteen Fakultatean irakasten du, Cuencako U Konpainia preprofesionalean irakasle bilakatuz. 2008an dantza garaikidean diploma eskuratu eta gero *Maurice Ravel* Kontserbatorioan sartzen da. 2016az geroztik "Zabala" ikasbidea segitzen duten euskal dantzariekin ari da dantza garaikidea erakusten.

Annie Onchalo – Eszenografoa

Bordaleko "Beaux Arts" eskolako formakuntza egin ondoan, Annie Onchalo artistak eskualdeko toki batzuetan bere lanak erakusten ditu.

Antzerkiko ikusgarrietan parte hartzen du antzerkirako materialak, dekoratuak, mozorroak sortuz edo eskualdeko konpainia anitzentzat eszenografia lana betetzen du. Txotxongiloak egiten ditu eta zenbait konpainiarekin elkarlanean ari da. Antzokiko taulan aktoreen jantziez eta teknikaz arduratuz "Le temps d'aimer", "Les Translatines" eta Hendaiaiko "Le Mai du Théâtre" festibaletan esku hartzen du.





Dantzariak

Bela Balsa, Clara Bessard, Pauline Bonnat, Josu Corbineau, Naia Corbineau, Aintzane Haira Garat, Eva Jullière, Régis Kiefer, Garazi Palacios, Magali Praud, Côme Tanguy.



Zuzendaritza artistikoa

Julien Corbineau

Koregrafiak

Laetitia Cheverry

Jantziak

Maidier Corbineau, Annie Onchalo

Eszenografia

Annie Onchalo

Argazkiak – Bideoak teaser

Gabrielle Duplantier – Jérémy Hugues



GESS

CIE SO.K

